

Herri Ametsa Ikastola Koop. Elk.

Karlos Ibarzabal, Herri Ametsa ikastolako zuzendaria:

“Irakasleok ezin gara edukien transmisore hutsak izan, baloreak ere transmititu behar ditugu”

Herri Ametsa Ikastola 1966. urtean sortu zen eta 2004. urtean kooperatiba bihurtu zen. Ordutik, bere espiritu kooperatibista kudeaketan, filosofian eta hezkuntza sisteman harnasten da, denon arteko partaidetza baita bere baloreetako bat.



 Karlos Ibarzabal, Herri Ametsa ikastolako zuzendaria.

Donostiako Herrera, Altza eta Intxaurren auzoetan ez zegoen hezkuntza euskaldunik eta behar hori asetzeko sortu zen Herri Ametsa ikastola, 1966. urtean. Lehenengo urteetan, etxebizitza batzuetan ematen zituzten klaseak, ikasle kopuru txiki batekin. Gerora, udaletxeak egoitza bat eskaini zien, elizaren babesarekin ere jaso zuten eta, denon partaidatzerekin, atera zen aurrera ikastola. Gaur egun, 60 bat irakasle eta 550 ikasle inguru ditu. Sozietate anonimo bat bezala jaio bazen ere, 2004. urtean kooperatiba bihurtu zen.

Herri Ametsa ikastolako zuzendari Karlos Ibarzabalen iritziz, “kooperatiben munduan egoteak talde baten barruan babesarekin edukitzea esan nahi du. Gainera, formazio komun bat edukitzea ahalbideratzen du. Hala ere, kooperazioaren espiritu hori hasieratik egon izan da ikastoletan”. Kooperatibismoa ikastolaren ardatz eta oinarri bihurtu da, eta espiritu kooperatibista autokudeaketan ere antzematen da.

2005. urtetik, Herri Ametsa ikastolak Kalitate Egitasmo Integratua (K.E.I.) izeneko programan hartzen du parte. Soilik ikastetxeetan gauzatu daitekeen eredu bat da eta ikastolaren kudeaketan eragin zuzena du. Izan ere, eredu honek, ikastolaren barruan dauden agente guztiak proiektu berdinean sentiarazi eta bateratzen ditu.

“Orain arte ikastoletan lan handia egin den arren ikuspegi orokor baten beharra sentitzen zen. Eredu honek kudeaketa eraginkor bat bermatzeaz gain, hezkuntza komunitate osoaren partaidetza ahalbideratzen du. Hezkuntza elkarlanean egin behar den proiektua bezala ulertzen da eta, bertan, denok dugu ahotsa” dio Ibarzabalek -eta azpimarratzen du- “gure ikastolak aurrerapauso handi bat eman zuen K.E.I. ereduarekin sartu ginenetik”.

Ereduak kudeaketa bateratu bat ahalbideratzeaz gain, ikasleok ere hobekuntzak ekarri ditu, eta langilegoaren artean kohesioa gauzatu du. Ibarzabalen esanetara, “guretzat pozgarria da ikusteak kudeaketa honek funtzionatzen duela, operatiboa dela. Denon ahotsa iristen da eta, gainera, hezkuntza globalizatu bat sortzen da. Proiektuak denok dira, ikastolan parte hartzen duten agente guztiak. Kooperazioarekin lotua dago eta hau abersagarria da. Izan ere, hezkuntzaren proiektuan denok hartzen dugu parte: irakasleak, irakasleak, gurasoak...”.

Kooperatibismoa eta partaidetza, kudeaketan ez ezik, Herri Ametsa ikastolak duen filosofian gauzatzen dira. Ibarzabalen esanetara, “gure ikasleak euskaldun giro batean hazi nahi ditugu, mundu integratzaile eta global batean. Baliabide hoberenak eskaini nahi dizkiegu, bai teknologia aldetik eta bai ikasgai aldetik, baina baita balore aldetik ere. Adibidez, naturarekin errespetuz jokatzeko”. Alor honetan, Ibarzabalek azpimarratzen du “irakasleok ezin gara edukien transmisore hutsak izan, baloreak ere transmititu behar ditugu”.

Ikastolako jangela berria

Herri Ametsa ikastolak Aibak taldearekin batera abian jarri duen azken proiektuetako bat jangela berritzearena izan da eta, hain zuzen, filosofia horrekin dago lotua. “Batetik, elikagaiei begira aldaketa bat egon da. Elikagaiak ekologikoak eta bertakoak izatea gustatzen zaigu. Gainera, umeei jantokia atsegina iruditu behar zaie. Umeak gustora senti daitezkeen leku batean bihurtu dugu jangela. Bestalde, jangelako paretetan janariari buruzko informazio didaktikoa jarri dugu” -eta azpimarratu du- “jangela berria egiterakoan, aspektu gastronomikoak, emozionalak eta didaktikoak hartu genituen kontuan”.

“Gure ikastolak aurrerapauso handi bat eman zuen K.E.I. ereduarekin sartu ginenetik”



“Jangela berria egiterakoan, aspektu gastronomikoak, emozionalak eta didaktikoak hartu genituen kontuan”



Jangelaz gain, umeei dieta osasungarri bat emateko helburuarekin, ikastolak familiei informazioa eskaintzen diete. Umeen jangelan jaten dutenari buruzko informazioa helarazten zaie gurasoei eta ikastolatik kanpo zer jan behar luketen aholkatzen zaie. Bestetik, saio bereziak ere egiten dituzte gurasoekin, janari orekatuak zeintzuk izan daitezken azaltzeko eta umeei janariekin izan ditzaketan alergieiei buruz mintzatzeko. “Gaur egun, elikagaien munduan, gero eta ohikoagoak dira gaixotasunak eta alergia, eta hauetaz hitz egiteko saio bereziak egiten ditugu gurasoekin” dio Ibarzabalek.

Etorkizunera begira, Herri Ametsa ikastolak hainbat erronka ditu esku artean. Horietako bat, euskararen erabilera indartzea izango litzateke. Ibarzabalen esanetara, “pauso handiak eman dira eta lan handia egiten da honen inguruan, baina ikastolen erronka nagusietako bat euskararen erabilera indartzea izan beharko luke beti”. Horretarako, Herri Ametsa ikastolak hainbat ekimen jarri ditu abian: inmertsio asteak, euskara indartzeko taldeak, gurasoentzako ikastaroak, etab.

Digitalizazioa ere ikastetxeen beste erronka nagusietako bat ari da izaten. Egun, DBHko ikasleek ia ez dute libururik eta portatilekin lan egiten dute, baina Ibarzabalen iritziz, “digitalizazioari dagokionean, adostasun bat behar dugu eta korrika egitea tokatzen zaigu. Izan ere, batzuetan badirudi ikasleak gure aurretik dijoaztela”. Orain arte ikastetxeetan umeei tresna digitalak erabiltzen erakusten zitzairen, baina horrekin ez da nahikoa. Generazio berriei hezkuntza bat eman behar zaie, tresna digitalak behar bezala erabili ahal izateko eta etikoki hauen mugak non dauden erakusteko.

Bestalde, kanpo espazioaren trataera etorkizuneko beste erronka bat ari da bihurtzen. Eskola tradizionalak sistema

ez zen aspektu hau kontuan hartzen, baina Herri Ametsa ikastola bezalako ikastetxe berri eta anitzetan kontziente dira gizartea aldatzen ari dela, eta honekin batera, hezkuntza eraldatu behar dela. Horregatik, espazioa egokitu egin behar da eta gela barruan dinamikotasuna lortu behar da. Ibarzabalen esanetara, “txikiekin ari gara aldaketak egiten eta pixkanaka, espazioa beren beharrei egokitzen joan gara. Hala ere, DBHen kezka sortzen zaizkigu. Azterketa gehiago daude, lana indibidualagoa da eta hor oraindik hutsuneak daude”.

Ibarzabalek dio “guk saiakera bat egin dugu. Gela batzuetan beste lur mota bat jarri dugu. Ikasleak sartzen direnean goxo sentiarazten ditu. Mahaiak tolestu egin daitezke eta beraz, gelak dinamikoak bihurtu ditugu. Urte batzuetan indibidualismoa presente egon da ikastetxeetan eta orain berriz ere elkarbizitza sustatzera bueltatu gara. Gela barruan baliabideak eskaintzen saiatu behar gara, teknologia berriei eta ohitura berriei egokitzen saiatu behar gara, elkarbizitza bultzateko”.

Teknologia berrien agerpena dela eta, gizartea aldatzen ari da eta horrekin batera, hezkuntza eraldatzen ari da. Herri Ametsa ikastolako sistema generazio berrietara egokitzen saiatzen ari da etengabe. Ibarzabalek dioenaren arabera, “aldaketa teknologikoak eta gizarte aldaketak bizitzen ari gara, eta horretara egokitu behar gara. Baina horretara egokitzeko adostasun bat behar dugu, eta horrela, elkarbizitza bat lortuko dugu. Aurrera begiratzeko, Plan bat prestatu behar da” –eta gehitu du- “ikastoletan lan handia egin da, baina oraindik lana badago egiteko eta generazio berriek lekukoa hartzen joan behar dute. Ezin dugu beti irakurketa atzera egin, irakurketa aurrera egin behar dugu”.